

Parisko ganberak gogoan

FESTA ALDAMENEO GELAN

Izenburua. *Festa aldameneko gelan*. Jatorrizko izenburua. *La fiesta en la habitación de al lado*. Egilea. Mariasun Landa. Itzultzailea. Jesus Mari Lasa. Argitaratze urtea. 2008. Argitaletxea. Erein (*Bakanak bilduma*).

INMA ERREA

MARIASUN Landak esana du, generoen sailkapen zorrotzari ihes eginik, haren ustez literatura ez dela atal iragazgaitzez osatua, eta horren beharrean, etxe handi bat dela literatura, gela anitzekoa, non

aise ibil daitekeen haietan barna, etengabe batetik bestera igaroz.

Izan ere, generoez bezainbatean, haur eta gazte literaturan kokatua izan da Mariasun Landa, anitz urtez. Baina bere betiko kokaguneari uko egin gabe, azkenotan eskaini digun liburua, *Festa aldameneko gelan* hau, estereotipo horretatik aldentzen da.

Gazte literaturaren estereotipotik aldentua da, bai, bere burua beste inongo atal iragazgaitzetan itxi gabe, hala ere. Liburua autobiografikoa da, baina ez du egilearen bizitza osoa kontatzen: Landak gaztetan Parisen emandako lau urtetatik lehena bai-

no ez. Eta narrazio bat –narrazio luzea– izanik ere, bertan gogoeta ugari jasotzen ditu egileak.

Liburu honek, bestalde, badu beste hainbat ezaugarri berezi. Landak ipuinak (30etik gora) euskaraz idatziz eskuratu ditu euskal zein nazioarteko literaturan ongi irabazita dituen postua eta ospea. Liburu hau, ordea, gaztelaniaz idatzia da, nahiz eta euskarazko itzulpena –Jesus Mari Lasa itzultzaileak egin, egilearen oniritziarekin– eta jatorrizkoa aldi berean eman zituzten argitara. Horrek, euskal idazle batek liburu bat gaztelaniaz idatzi izanak, kritika eta eztabaida batzuk sortu ditu euskal literaturaren esparruan.

Baina ez bai horiek gorabehera, liburu honek belaunaldi zabal baten –edo, agian, bizpahiru belaunaldiren– bizipenak ekarri dizkigu euskal

literaturara. Mariasun Landak liburu hau berak bezala 50 edo 60ko hamarkadetako heziketa jaso, liburuan kontatzen duen bidaia bezalako bat egin eta antzeko bizipenak izan dituzten berrogeitamar urtetik gorako emakumeei interesatzen ahal zaiela adierazi bazuen ere, azaldu du, baita ere, belaunaldi horietako gizon askok ere haien interesa aitortu diotela.

Nik uste dut baietz, belaunaldi horietako irakurleek –eta pitin bat gazteago garen batzuek ere bai– liburu kontakizunarekin lotura estua izaten ahal dutela, baina azpimarratzekoa da liburuak alderdi orokoragoak ere ukitzen dituela; kasu baterako, gaztetasunean ohikoak izaten diren sentipen, emozio eta pentsamenduen nahasmendu eta korapiloak.

Edonola ere, liburu honek, kontakizun autobiografikoek orok bezala, aukera ematen die irakurleei kontalariaren bizitzan kuxkuxean aritzeko –kontalariak noraino nahi eta puntu horretaraino– eta –agian interesgarriago izan daitekeena– kontaktutakoa irakurleen beraien bizipenekin alderatzeko.

Kontakizuna estilo soil batez egin da, eta ez dio arras segitzen gertaeren kronologiari. Artificio literario gutxi ditu, eta gertaerak zein irudikapenak azaltzerakoan argitasun eta zabaltasun handiak, baina obra literarioa da, Mariasun Landak berak literatur lanari egozten dizkion ezaugarriak dituelako: istorioa irakurtzean plazer eta jakinmina sentitzea, gustura leitzea eta istorioak emozioak sortzea irakurleengan.